

Egoera ekonomikoa eta Merkatuak ASTEKO LABURPENA

2017ko maiatzaren 29tik ekainaren 2ra.

➤ **INGURU MAKROA:**

- ❖ ASTEKO DATUEN PODIUMA
- ❖ KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

➤ **ASTE HONETAN MERKATUETAN**

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROPA: PMI MANUFATURA-INDIZEA



Datuaren analisia

Markiten datu aurreratuaren arabera, ematen du euroguneko industria-jarduera azkartu egin dela azken hilean. Indizea 56,7tik 57ra igo zen maiatzean. Azken 73 hiletako erregistrorik altuena da, eta argi erakusten du manufakturen jarduera hedatu egin dela.

Adierazlearen azalpena

PMI Manufaktura-indizeak hileroko erorketen profesionalei eta enpresetako exekutiboek euroguneko manufaktura-sektorearen egoerari buruz egiten zaien inkesta bat du oinarri. Fabrikazioaren sektorearen aldean ekonomiaren egoera zein den neurtzeko balio du. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, esate baterako, BPGd-arena. Emandako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, ordea, ekonomia uzkuertzen ari den seinale.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

AEB: ENPLEGUAREN TXOSTENA

Datuaren analisia


AEBetan, langabezia beherako bide etengabea da oraindik, eta maiatzaren amaieran % 4,3koa zen, 16 urteotan izandako tasarik txikiena. Enpleguaren sorreraren datuak apur bat lausotu zuen datu positibo hori, iragan hilean, ekonomia estatubatuarrak 138.000 lanpostu berri sortu baitzituen, 184.000 enplegu espero zituen merkatuaren aurreikuspenen azpitik. Bestalde, herrialdeko lan-merkatuko parte-hartze tasak % 0,2 egin zuen behera, % 62,7raino.

Adierazlearen azalpena

Enplegu-txostena hilerok argitaratzen du Estatu Batuetako Lan Sailak. Estatu Batuetako lan-merkatuaren egoerari buruzko txosten osatu bat da, eta hainbat datu aurki daitezke bertan; horien artean nabarmenenak: enpleguaren sorrera (nekazaritza-sektorea kanpo utzita), langabezia-tasa eta soldaten bilakaera. Txosten honi esker, Estatu Batuetako ekonomiaren bilakaeraren gaineko pronostiko bat egin daiteke. Lan-merkatua hazten ari bada, herritarren errenta erabilgarria handitu egiten da. Beraz, kontsumitzailearen gastua igo daiteke, BPGd-aren igoera bat eragingo lukeena, eta, ondorioz, herrialdearen ekonomiaren hobekuntza.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

JAPONIA: INDUSTRIA-EKOIZPENA



Datuaren analisisia


Industria-ekoizpenak % 4 egin zuen aurrera apirilean, aurreko hilarekin alderatuta. 2016ko hilabete berarekin alderatuta, indizea % 5,7 handitu zen. Apirilean industria-ekoizpenaren igoerari ekarpen handiena egin zioten industriak honakoak izan ziren: garraio-ekipamenduak, erabilera orokorra, osagaiak eta gailu elektronikoak.

Adierazlearen azalpena

Industria-ekoizpenaren indizeak (IPI) herrialde bateko industria-sektorearen adierazgarri den enpresa multzo baten ekoizpenean emandako aldaketak neurtzen ditu. Hilero enpresei industria-sektorearen egoerari buruz egiten zaizkien galdetegiaren erantzunetatik lortzen dira datuak. Ekonomia baten ekoizpen-maila nola aldatzen den jakitea oso garrantzitsua da hazkundearen analisisa egiteko.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

TXINA: CAIXIN PMI MANUFATURA-INDIZEA



Datuaren analisisa

Caixinek prestatzen duen manufaktura sektoreko PMIa 49,6 punturaino jaitsi zen maiatzan, apirilean 50,3ra igo ondoren. Datu horrek erakusten du iragan hilean jarduera apaldu egin zela lehenengo aldiz ia urtebetean, nazioarteko bezeroei zein bezero nazionaleri egindako eskari berrien hazkunde "nuluaren" ondorioz.

Adierazlearen azalpena

PMI Manufaktura-indizeak hileroko erostaketen profesionaleri eta enpresetako exekutiboeri manufaktura-sektorearen egoerari buruz egiten zaien inkesta bat du oinarri. Fabrikazioaren sektorearen aldean ekonomiaren egoera zein den neurtzeko balio du. Adierazle ekonomiko aurreratatu bat da, hau da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, esate baterako, BPGd-arena. Emandako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, ordea, ekonomia uzkuertzen ari den seinale.

KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Erem	Adierazle	Aurreiku
06/05	Japonia	PMI Nikkei zerbitzuak Japonia	--
06/05	Txina	Txinako PMI zerbitzuak Caixin	--
06/05	Erresuma Batua	Markit/CIPS RU Zerbitzuak PMI	55.1
06/05	Estatu Batuak	Markit AEB Zerbitzuak PMI	--
06/05	Estatu Batuak	Composite ISM ez manufaktura-sektorea	57.0
06/05	Estatu Batuak	Fabrika-eskariak	-% 0.2
06/05	Estatu Batuak	Ondasun iraunkorren aginduak	--
06/06	Espainia	Markit PMI zerbitzuak Espainia	--
06/06	Italia	Markit/ADACI Italia zerbitzuak PMI	55.3
06/06	Frantzia	Markit Frantzia Zerbitzuak PMI	--
06/06	Alemania	Markit Alemania Zerbitzuak PMI	55.2
06/06	Eurogunea	Markit Eurogunea Zerbitzuak PMI	56.2
06/06	Eurogunea	Sentix inbertsiogilearen konfiantza	27.2
06/06	Eurogunea	Urte arteko xehekako salmentak	% 2.0
06/07	Japonia	CI lider indizea	104.3
06/07	Alemania	Urte arteko WDA fabriken aginduak	% 4.8
06/07	Espainia	Urte arteko SA industria-ekoizpena	--
06/07	Alemania	Markit PMI eraikuntza Alemania	--
06/07	Italia	Urte arteko xehekako salmentak	--
06/07	Eurogunea	Markit Eurogunea xehekako merkataritza PMI	--
06/07	Eurogunea	OCED Aukera Ekonomikoak	0
06/07	Eurogunea	Urte arteko BPGd SA	% 1.7
06/08	Japonia	Hiruhileko BPGd SA urtekotua	% 2.4
06/08	Japonia	BoP Balantza kontu korrante bidez	¥1698.8b
06/08	Alemania	Urte arteko WDA industria-ekoizpena	% 2.3
06/08	Frantzia	Balantza komertziala	--
06/08	Frantzia	Kontu korrontearen balantza	--
06/08	Espainia	YoY INE etxebizitzaren prezioen indizea	--
06/08	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	--
06/08	Txina	Balantza komertziala	\$47.80b
06/09	Txina	Urte arteko KPIa	% 1.5
06/09	Txina	Urte arteko ekoizpenaren prezioen indizea	% 5.7
06/09	Alemania	Balantza komertziala	25.0b
06/09	Alemania	Kontu korrontearen balantza	--
06/09	Frantzia	Urte arteko industria-ekoizpena	--
06/09	Erresuma Batua	Urte arteko industria-ekoizpena	-% 0.4
06/09	Erresuma Batua	Balantza komertziala	-£3400
06/09	Estatu Batuak	MoM handizkako inbentarioak	-% 0.3
06/09	Estatu Batuak	Hileko handizkako merkataritza-salmentak	--

Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.